



ERRELATORETZA
Unibertsitate Kritiko Eraldatzailea
Topaketa

Madrilan, 2023ko maiatzaren 19an

Finantzatzailea



Antolatzaileak



Aurkibidea

| | |
|---|----|
| Sarrera..... | 2 |
| Antolatzaileak eta parte-hartzaileak..... | 3 |
| Lan-esparrua | 5 |
| Proiektua: <i>Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa</i> | 5 |
| Hitzarmena: <i>Elikadura eta Hezkuntza</i> | 6 |
| Lantaldeen emaitzak..... | 7 |
| Lurraldekako lantaldeak | 7 |
| Interesen araberako lantaldeak | 8 |
| 1) Irakaskuntza | 8 |
| 2) Ikerketa | 9 |
| 3) Unibertsitate hedakuntza | 10 |
| 4) Unibertsitate komunitatearen dinamizazioa | 11 |
| 5) Barne kudeaketa, koherentzia eta gobernantza | 12 |
| 6) Hego-lpar harremanak | 13 |
| Latinoamerikako esperientziak..... | 14 |
| Topaketako indar-ideiak..... | 15 |

Sarrera

Honako dokumentu hau **2023ko maiatzaren 19an Madrilen lehen aldiz ospatutako Unibertsitate Kritiko Eraldatzailea Topaketaren** errelatoretz da. Topaketaren helburua, bada, unibertsitateko irakasleen, Justicia Alimentaria-ren eta Hegoaren arteko eztabaidarako eta lankidetzarako eremu bat sortzea izan zen, garapenaren alde unibertsitateen artean izan daitezkeen aliantzak identifikatzeko eta gizarte eraldaketako prozesuak artikulatzeko.

Jardunaldian elkarrekin hausnartu genuen Unibertsitatea nola indartu lurraldearekin konprometitutako eragile kritiko bihurtzeko, hain zuzen, trantsizio ekosozial eta ekofeministako prozesuak sustatuko dituen ezagutza sortzen lagunduko duen eragile kritiko. Helburu hori erdiesteko, ezinbestekotzat jotzen dugu Unibertsitatearen eginkizuna eta gizartearekin duen harremana birpentsatzea; izan ere, gure ustez, erakunde hori -irakaskuntza, ikerketa eta hedakuntza eginkizunen bitartez- ezagutza askatzailea sortzera bideratu behar da. Komunitateen zerbitzura egongo den eta gizarte eraldaketarako garrantzitsua izango den ezagutza sortuz, alegia.

Beraz, unibertsitate komunitatearen barruan, Akademiak eginkizun hori izan behar duela sinesten duen sektore horrekin lan egin nahi dugu, Hezkuntza Askatzaileak (HA) edo Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak (GEH) proposatzen duten esparruaren arabera.

Horretarako, abian jarri ditugun zenbait ekimen eman ditugu ezagutzera Topaketan (proiektu bat eta hitzarmen bat) eta horietan bi ardatz estrategiko landuko ditugu:

Elikadura Eskubidea. Gaur egungo elikadura-eredua jasanezina eta injustua da eta ez da oso osasungarria edo irisgarria. Horren aurrean, Elikadura Burujabetzaren ikuspegiek eredu erresilienteagoak sustatzea proposatzen dute, “herriek elikagai nutritiboak eta kulturalki egokiak, eskuragarriak eta modu jasangarri eta ekologikoan ekoizitakoak izateko duten eskubidea” bermatzen dutenak. Elikaduraren esparrua aldaketarako ardatz estrategiko gisa hartu behar dela uste dugu. Horrek, bada, aukera bikaina eskainiko digu munduren konplexutasuna eztabaidatzeko, pentsamendu sistemiko, kritiko eta sakona garatzeko, eta “Akademiak” historikoki baztertutako jakintzak eta epistemeak aintzat hartzen dituen ezagutza sortzeko ere. Gainera, elikadurak gure bizitzak zeharkatzen ditu egunerokoan, eta, hortaz, teoria eta praktika uztartzea errazten du; gure elikadura ohiturak aldatzeko erabakiak hartzeko aukera ematen digu, elikadura-eredua eraldatzeko helburuekin bat; eta, aldi berean, kolektiboan antolatzeko premia dinamizatzen du, gure lurraldeetan elikadura bidezkoa, osasungarria eta iraunkorra sustatzeko.

Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa (UHK). Unibertsitate konprometitu batek komunitateen premia eta interesei erantzuteko gai izan behar du, bizi ditugun krisi larriei aurre egingo dieten proiektuak sustatu bitartez. Horretan, unibertsitate hedakuntzak zeregin garrantzitsua du; izan ere, Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremana gauzatzen du. Hedapen funtzio hori ezagutza akademikoa unibertsitateaz kanpoko publikoari transferitze huts gisa ikusten duen ideiarekin aurrean, UHKak norabide askoko prozesuak sortu nahi ditu Unibertsitatearen eta gizartearen artean, hedakuntzaren dimentsio politikoa birzehazteko eta hura gizarte eraldaketara bideratzeko. Zentzu horretan, UHKa komunikazio eraldatzaileko prozesuekin batera garatzen da. Horietan, funtsezkoa da horizontaltasuna, hau da, subjektuek informazioa, ezagutza eta ekintza sortzeko duten ahalmena elkarri aintzatestea. UHKa, beraz, unibertsitate komunitateen eta lurraldeko gizarte eragileen arteko elkarriketa emankorra sustatzeko ezinbesteko estrategia da, beharrezkoak diren trantsizio ekosozialak eta ekofeministak sustatzen lagunduko duena.

Antolatzaileak eta parte-hartzaileak

Topaketaren dinamizazioaz Kaleidoskopi¹ taldea arduratu zen eta jardunaldia Justicia Alimentaria-k eta Hegoak antolatu genuen, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (eLankidetz) diru-laguntzari esker.

Justicia Alimentaria. Gaur egungo nekazaritza- eta elikadura-eredua aldatu beharra dagoela uste dugun zenbait lagunek osatutako elkarte gara; izan ere, eredu horrek komunitate landatarrak zapaltzen eta kanporatzen ditu, gaixotzen gaitu eta ingurumena hondatzen du. Aldaketa hori lortzeko ezinbestekoa da Elikadura Burujabetza eta Elikadura Eskubidea ikuspegi feminista eta dekolonial batetik lortzea.

Hegoa. Nazioarteko Lankidetz eta Garapenera Buruzko Ikasketa Institutua Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) institutu bat da. Gure helburura gizarte eraldaketaren alde eragitea da, gaur egungo garapen-eredua zalantzan jartzen duen ikuspegi kritiko, feminista eta dekolonial batetik. Ikerketaren, prestakuntzaren, aholkularitzaren eta hezkuntza-estrategien bitartez gizarte- eta ingurumen-justiziako ereduaren aldeko agenda kolektiboa indartzen saiatzen gara.

Topaketan 55 lagun izan ginen: 35 irakasle (Espainiako Estatuko 11 unibertsitatetik eta Latinoamerikako 3 unibertsitatetik), Justicia Alimentaria-ko 14 kide, Hegoaren Hezkuntza Taldeko 4 kide eta 2 dinamizatzaile. Gainera, jardunaldian ekonomia sozialeko hiru kooperatiba ere izan ziren (Kaleidoscopi, El Fogón Verde eta Ecooo).

Irakasleen taldea bereizteko, izena emateko galdetegietatik datuak atera ditugu eta honako hauek azpimarratzen ditugu:


- ➔ Irakasleen erdia baino gehiago hezkuntza fakultateetatik datoz, ekimenen foku nagusia fakultate horietan biltzen baita. Neurri txikiago batean, arkitekturako, geografiako, ingeniariak agronomoko, politika zientzietako, ekonomia zientzietako, garapenerako lankidetzako eta gizarte langintzako irakasleak ere izan ziren. Fakultate horiek unibertsitatearen barruan eta unibertsitate artean sinergiak aurkitzeko asmoz gonbidatu genituen.
- ➔ la irakasle guztiek (% 93) ikerketa lanak egiten dituzte hezkuntza, hezkuntza-berrikuntza, gizarte justiziarako hezkuntza eta/edo gizarte langintza arloetan. Horiez gain, generoko, agroekologiako, soziologiako, erosketa publiko arduratsuko edo hirigintza iraunkorreko arloetan ikertzen duten irakasleak ere izan ziren, baina neurri txikiago batean. Gehien-gehienek interesgarri ikusi zuten hezkuntza gizarte eraldaketarako tresna gisa (ikus informazio osoa [mapa honetan](#)).
- ➔ Parte hartu zuten irakasleen % 63k unibertsitate hedakuntzako jardueretan parte hartzen dute. Hezkuntza fakultateetan, lotura ikasketa-zerbitzu jarduerekin ematen da batez ere. Beste fakultate batzuetan, ordea, elikadura-eredu bidezko eta iraunkorrei

¹ www.kaleidoscopi.com

lotutako ikastaro irekien eta tokiko garapen proiektuen bitartez ematen da lotura hori. Talde txiki batek hedapen jarduerak eta nazioarteko lankidetzak lotzen ditu.

- ➔ Unibertsitate erakundeetan parte hartzeari dagokionez, irakasleen % 45k beren sailaz kanpoko talderen batean parte hartzen dute (ikerketak taldeak, institutuak, sareak edo unibertsitate behatokiak). Ia ez dira beste erakunde mota batzuk ikusten, hala nola elkarteak, katedra askeak edo irakasleen mugimenduak².
- ➔ Azpimarratu nahi dugu, parte-hartzaileen % 53k unibertsitateaz kanpoko gizarte erakunderen batean parte hartzen dutela, elikadurari, migrazioei, osasunari, nazioarteko lankidetzari edo ekologiarri lotutako arloetan.
- ➔ Irakasleen interesari dagokionez, hezkuntza kritikoa eta Elikadura Eskubidea nabarmentzen dira, deialdiaren izaera bera dela eta.

1. grafikoa. Topaketan izena emandako lagunen interesak.



Iturria: Kaleidoskopi.

Topaketan parte hartu zuten irakasleen espektatibak ezagutzea lagungarria izan zen landinamikak zehazteko eta jardunaldiaren helburuak zentratzeko. Jarraian, irakasleek aurkezpen kolektiboko galdetegian aipatutako espektatibak eta itxaropenak biltzen ditugu.

Oro har, gehienek beste unibertsitate batzuetako irakasleekin eta gizarte erakundeekin partekatze gogoia adierazi zuten, **sare lana indartzeko eta eragiteko ahalmen handiagoa izateko**. Zentzu horretan, lan txikia eta atomizatua egiten delako sententzioarekin amaitzea izan zen Topaketan parte hartzeko motibazioetako bat: beste unibertsitate batzuetan zer egiten ari den ezagutzea, ikuspegiak bateratzea, sinergiak topatzea, aliantzak ehuntzea, sareak osatzea...

Irakasle gehienek kolektibo edo gizarte mugimenduetan parte hartzen dutela adierazi zuten, hortaz, gizarte eraldaketarekin duten konpromisoa ere motibazioetako bat izan zen. Irakasleen

² Datu horrek oso informazio baliagarria ematen digu unibertsitateen barruan gizarte kohesioaren eremuak aurkitzeko zailtasunari dagokionez.

beren hitzetan, konpromiso hori arlo profesionalaz harago doa eta lan arloan eta eremu pertsonalean gauzatzen den apustu politikoa da.

Ikasleak eta ohikoak ez diren gizarte eragileak (adibidez, Justicia Alimentaria) **tardean sartzeko estrategia eta bide berriak sortzea** ere beste motibazio bat izan zen. Izan ere, horiek Unibertsitate kritiko eraldatzaile bat lortzen laguntzeko ahalmen handia dute.

Lan-esparrua

Justicia Alimentaria eta Hegoa elkarrekin datoz topaketa honetara, denbora batez hezkuntza sistema formalaren etapa desberdinetan elkarrekin lan egin ondoren. Gure estrategia hezkuntza sistemak gaur egungo elikadura ereduarekin kritikoa den herritartasuna sortzeko duen ahalmen eta funtsezko eginkizunean oinarritzen da. Herritartasun hori Elikadura Burujabetzan eta Elikadura Eskubidean oinarritzen den eta genero ikuspegia eta ikuspegi dekoloniala dituen elikadura-eredu batera igarotzeko eraldaketaren protagonista ere bada. Horretarako, bada, irakasleak eta hezkuntza komunitatea elikadura-kultura berri bat sortzeko prozesuan laguntzen ditugu. Kultura horrek ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko modu berriak sustatuko ditu, bidezkoagoak, osasungarriagoak eta jasangarriagoak izango direnak.

Justicia Alimentaria 2010ean hasi zen Lehen Hezkuntzan lan egiten, baina gure erakundearen arteko lankidetzak 2014an hasi zen. Orduz geroztik, elkarrekin lan egin dugu Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan eta lotura sendo batekin heldu gara 2023ra, unibertsitate eremuetan eman diren sinergieiei esker.

Oraingoa, bi ekimen sortu ditugu (proiektu bat eta hitzarmen bat) eta horiek lurraldearekin konprometitutako Unibertsitate kritiko eraldatzaile bat indartzeko helburu partekatua dute.

Topaketan egindako [aurkezpenak](#) proiektuari eta hitzarmenari buruzko informazio zehatza ematen du, baina, laburbilduz, hona hemen ekimen horien ildo nagusiak:

Proiektua: *Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa*

“Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa: *Herritartasun globala eraikitzeko konpromiso sozialaren proposamena, pandemia osteko testuinguruan*” izenburuarekin, Hegoak estatuko zortzi unibertsitatearen eta Latinoamerikako biren laguntzaz inplementatzen du proiektu hori (2023-2024).

Lau estrategia hauetan oinarritzen da proiektua: ikerketa, eztabaida teorikoa, parte hartzea eta komunikazioa. Lau estrategia horiek elkarri lotuta daude.

Parte hartzen duten unibertsitateekin batera, esplorazio-analisi bat egingo da (**ikerketa**) egiten ari diren unibertsitate hedakuntzako jardueren eta tipologiaren berri emateko. **Eztabaida teorikoko** eremuak sortuko dira analisiaren emaitzak unibertsitate komunitatearekin kontrastatzeko. Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren zentzua kolektiboki eraikitzeko asmoz, **parte hartzeko** eremuak sortuko dira (besteak beste, UHKari buruzko Estatu mailako Jardunaldiak). Hala, komunikazio eraldatzailea funtsezkoa izango da proiektuaren fase guztietan, gizarte eraldaketarekin konprometitutako eragileak elkarriketa emankorrean jartzeko, Unibertsitatearen eta gizartearen artean zubiak ezarriz. Informazio gehiago [hemen](#).

Hitzarmena: Elikadura eta Hezkuntza

“Unibertsitate kritiko eta eraldatzailea. Ikuspegi ekosoziala eta ekofeminista klima- eta gizarte-krisiaren aurrean, Elikadura Eskubidea aldateta-ardatz gisa hartuta” da ekimen honen izena. Lau urteko iraupena du (2023-2026) eta Justicia Alimentaria-k eta Hegoak garatuko dute.

Haren helburua da Unibertsitateak nekazaritza- eta elikadura eredua aldatzeko duen konpromisoa eta ahalmena indartzea, hain zuzen ere, klima-larrialdia hezkuntza kritiko eraldatzailearen, feminismoen eta gizarte justiziaren ikuspegietatik hartzen duten ereduen alde. Teoriaren eta praktikaren arteko koherentzia funtsezkoa da benetako gizarte eraldaketa sustatzen duten ikasketa prozesuetan. Beraz, hitzarmenak, aldatetarako ekimenak uztartzeko asmoa du, irakaskuntzaren, ikerketaren, hedakuntzaren eta are unibertsitatearen erosketa publikoaren bitartez ere. Horretarako guztirako, ibilbide luzea duten zenbait unibertsitate latinoamerikar gonbidatu ditugu eta horiek prozesu guztian lagunduko dute. Informazio gehiago [hemen](#).

1. irudia. Proiektuaren jardura nagusiak (ezk.) eta hitzarmenaren lan-ildo nagusiak (esk.).

The infographic is divided into two vertical panels. The left panel, titled 'PROIEKTUA HEDAKUNTZA', lists eight activities. The right panel, titled 'HITZARMENA ELIKADURA', lists six work lines. Both panels feature a background image of green plants.

| PROIEKTUA HEDAKUNTZA | HITZARMENA ELIKADURA |
|--|--|
| 1 UHaren esplorazio analisia Actividades y tipologías de ExU en 8 universidades para identificar el sentido y el enfoque de Extensión Universitaria (ExU). | 1 Irakaskuntza Irakasleek ikuspegi ekofeminista duen trantsizio ekosoziala bultzatzeko behar duten informazioa, baliabideak eta harremanak dituzte. |
| 2 Online prestakuntza mintegia Diagnostikoaren emaitzak kontrastatzea + Prestakuntza | 2 Ikerketa Lurraldearekin eta elikadurarekin -aldaketaren ardatz estrategiko gisa- konprometitutako ikuspegi ekosoziala eta ekofeminista hatzen du. |
| 3 UHaren diagnostikoa eta gomendioak Gizarte eraldaketa sustatzen duen UH kritiko baten aldeko dokumentua. | 3 Koherentzia, kudeaketa eta gobernantza Administrazioaren, kontratazioaren eta unibertsitate zerbitzuen arduradunek elikagaien erosketa publiko arduratsu, bidezko eta iraunkorari buruzko ezagutzak barneratzen dituzte. |
| 4 UHKari buruzko Jardunaldiak Egun eta erdiko jardunaldia. Latinoamerikako eta Europako hizlariekin eta akademia-gizarte elkarriketarako eremuekin | 4 Unibertsitate kom. dinamizazioa Ikasleen erakundearen bitartez, ikuspegi ekofeminista duen trantsizio ekosozialaren aldeko ekintzak egiteko, elikadura aldatetaren ardatz estrategiko gisa hartzen dituztenak. |
| 5 Komunikazio plana Podcast bat, ikus-entzunezko kapsulak eta jardunaldien laburpen bideoa. | 5 H-I harremanerako eremua Aldaketa ekosozialarekin eta hezkuntzakoarekin konprometitutako herritartasun kritikoa sortzen duten ikuspegi metodologikoak partekatuz ikasteko. |
| 6 UHKaren printzipio-gutuna Sare sozialetan zabaltzeko gutun interaktiboa | 6 Komunikazio plana Ikerketako, irakaskuntzako, kudeaketako eta unibertsitate komunitatearen parte-hartzeko esperientziak partekatzen dira. |
| 7 Hariak monografikoak UHKari buruzko artikuluen, elkarriketen, esperientzien eta baliabideen bilduma. | |
| 8 Emaitzak aurkezteko web-mintegia Baliabideen eta emaitzen aurkezpena eta UHKari buruzko adituen hitzaldia | |

Iturria: egileak.

Ekimen biak elkarrekin aurkeztu dira, hainbat elkargune eta potentzialtasun baitaude baterako lan horretan. Hurrengo irudian sinergia horietako batzuk aipatzen dira.

2. irudia. Hitzarmenaren eta proiektuaren arteko sinergiak.



Iturria: egileak.


Lantaldeen emaitzak

Lurraldekako lantaldeak

Topaketan izan dugun erronketako bat loturak sortzea izan da, irakasleek zein Hegoako eta Justicia Alimentaria-ko taldeek proiekturako eta hitzarmenerako aliantza esparru bat ikusteko. Asmo horrekin, talde lanerako lehen eremua lurraldeka antolatu zen, lurralde berean dauden irakasleek eta Hegoako eta Justicia Alimentaria-ko eragileek elkar ezagutzeko eta sakontzeko aukera izan zezaten.

Eztabaida pizteko asmoz, eta termometro gisa ere, parte-hartzaileei galdetu genien nola ikusten zuten beren unibertsitateen ahalmena erakunde “kritiko” gisa jarduteko (hau da, konprometitua, inguruko premiak asetzera bideratua, gizarte eraldaketaren eragilea, eta abar).

2. grafikoa. Unibertsitatearen balorazioa, lurraldeka (barrek balorazio bakoitzaren bozka kopurua adierazten du).



Iturria: egileak.

Ikuspegi desberdintasunak eztabaidak piztu zituen eta, horiei esker, alde batetik, “unibertsitate kritikoa” definitzeko irizpideak eta, bestetik, Unibertsitatea eta bertan diharduten eragile kritikoak ulertzeko modua bateratzeko aukera izan genuen.

Oro har, lurralde gehienek ustez, Unibertsitatea ez da erakunde kritikoa edo ez oso kritikoa. Hainbatetan aipatu zen ikuspegi kritikoetatik sustatutako ekimen eta proiektuak oso bakanak direla eta eragiteko ahalmen txikia dutela. Hala, irakasleek “sistemaren arrakalak” baliatzeko eta, esate baterako, bestelako irakaskuntza bat egiteko duten ahalmenari buruz ere eztabaidatu zen. Aldaketak eragiten dituzten “uharteak” badaudela onartu zen (taldeak eta fakultateak), baina denbora faltagatik, horien lanaren aintzatespen urriagatik eta aldaketak zenbait lagunen “borondate aktibistaren” menpe egoteagatik (hau da, pertsona jakin batzuen lanaren emaitza direla eta ez apustu politiko instituzional batena), zaila izaten da lan hori denboran mantentzea. Ildo horretan, estrategikotzat hartu genuen Unibertsitatea gizarte eraldaketarako eragile gisa kokatzearen garrantzia ulertzen duten lagunak egotea.

Modu koordinatu eta antolatu batean lan egitea (elkarguneak bilatuz, sareak osatuz, aliantzak ehunduz) premia kotzat hartu zen ekintza eraginkorrak burutu ahal izateko. Zentzu horretan, lan egiteko modu hierarkizatuak, kapitalistak (meritukratikoak) eta indibidualizatuak baztertu behar ditugula aipatu zen. Halaber, “eredu unitarioa” aldatu beharra dagoela mahaigaineratu zen; izan ere, horrek Unibertsitatea eta haren zentzua eta eginkizunak modu hegemoniko eta globalizatu batean ulertzeko modu bakarra proposatzen du. Azkenik, Unibertsitatearen eta gizartearen arteko artikulazio falta ere aipatu zen, baita hori ingurunearekin konprometitutako Unibertsitate bat lortzeko oztopo bat dela ere.

Valentziako, Kataluniako, Aragoiko eta Murtziako lurraldeetan balorazio aniztasun handiagoa atzeman zen unibertsitatearen ikuspegi kritiko eraldatzaileari dagokionez. Izan ere, lurralde horietan balorazio positibo gehien jaso ziren (nahiko kritikoa eta oso kritikoa). Hala ere, azaldu zutenaren arabera, “puntuazio altuek sortzen ari den eta baliotsua den hori adierazten dute [...] Puntu horiei erreparatu behar diegu inspirazioa hartzeko”. Hau da, gehienak ez badira ere, zentzu kritiko batetik eragiten duten eta Unibertsitatea eraldatzen laguntzen duten ekimenak daudela uste dute.

Interesen araberako lantaldeak

Bigarren une batean, taldeak irakasleen nahien eta ezagutzen arabera osatu ziren eta honako sei gau hauei buruz eztabaidatu zen: 1) irakaskuntza; 2) ikerketa; 3) unibertsitate hedakuntza; 4) unibertsitate komunitatearen dinamizazioa; 5) barne kudeaketa, koherentzia eta gobernantza; eta 6) Hego-Ipar harremanak. Jarraian, gai bakoitzaren interesaren justifikazioa eta taldeek egindako hausnarketa nagusiak laburbiltzen ditugu. Azkenik “Planifikatutako ekintzak” atalean, proiektuak eta/edo hitzarmenean aurreikusitako gaiei lotutako ekintzak identifikatuko ditugu.

1) Irakaskuntza

Hezkuntza formala gure planetan modu bidezko eta iraunkor batean bizitzeko beharrezkoak diren aldaketa horiek lortzeko oinarri bat da. Hortaz, estrategikotzat hartzen dugu herritartasun kritiko eta proaktiboa sortuko duten irakaskuntza-ikasketa prozesuak laguntzea eta sustatzea, inoiz ere elikadura eredu osasungarriagoa, irisgarriagoa, bidezkoagoa eta iraunkorragoa helburu duen eraldaketa ardatz gisa hartuz.

Hausnarketak

- Irakasleek nabarmentzen dute dagoeneko konpromiso pertsonal bat dutela hainbat ekimen eta prozesurekin, eta sare aniztasun handia dagoela. Haien ustez, egiten ari diren horrek unibertsitate kritikoa osatzen laguntzen du eta, beraz, ez dira zerotik hasten Justicia Alimentaria eta Hegoaren proposamena laguntzeko.
- Unibertsitate irakaskuntzak subjektu kritikoak sortzeko duen ardura onartzen dute, baita irakaskuntzak gizarte eraldaketarekin izan behar duen konpromisoa ere.
- Ikasleak tartean sartzeko eta benetako esperientzia eta arazoekin konektatzeko estrategiak sortzearen garrantzia nabarmentzen dute, eta ikasleek eta irakasleek bizi dituzten egoerak hurbiltzera animatzen dituzte irakasleak.
- Zenbait oztopo ere nabarmentzen dituzte. Hain zuzen, ikasleek aldaketaren aurrean erakusten duten erresistentzia; zenbait proiektu egiteko zailtasunak, bai oso asmo handikoak direlako, bai irakasle gutxik parte hartzen dutelako (batzuetan bakar bat); okertzearen estigmatizazioa, arrakastatsuak izan ez diren esperientzietatik ikastea oztopatzen duena.

Planifikatutako ekintzak

Irakasleek ikuspegi ekofeminista duen trantsizio ekosoziala gelan sustatzeko informazio, baliabideak eta estekak izan ditzaten nahi dugu, eta, horretarako, honako ekintza hauek planifikatu ditugu.

Hitzarmena

- Parte hartzen duten irakasleekin batera baliabide eta material pedagogikoak egitea, intereseko gai horien inguruan.
- Irakasleei hezkuntza arloko titulazioetako irakaskuntzan laguntza ematea.
- Trantsizio ekosozial eta ekofeministarekin konprometitutako eta unibertsitateekin lan egiteko prest dauden eragileak mapatzea.
- Irakasleen eta lurraldeko eragileen arteko lankidetzaren esperientziak sustatzea.
- Garatutako lankidetzaren esperientzien komunikazio-plan bat garatzea.

Proiektua

- Unibertsitate Hedakuntza Kritikoko Estatu mailako Jardunaldia. Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren proposamenari zentzu politikoa kolektiboki emateko esparruan parte hartzea, gizarte eraldaketarekin konprometitutako irakaskuntzaren helburuekin bat.

2) Ikerketa

Ikerketa gaur egun ezagutzen dugun Unibertsitatearen funtsezko oinarri bat da. Hala ere, sortzen duen informazio gehienak ez die ikerketaren atzean dauden herritarrei/komunitateei/lurraldeei protagonismoa ematen edo ez zaie haiei itzultzen. Justicia Alimentaria-ren eta Hegoaren ustez unibertsitatearen eginkizun horrek konpromiso sendoa izan behar du komunitateekin, Unibertsitateak gizarte eraldaketen dinamizatzaile gisa duen eginkizuna sustatuz.

Hausnarketak

- Unibertsitate guztiek gizartearen arazoak konpontzeko misioa aitortzen dute. Hortaz, ikerketak benetako eragin soziala izan beharko luke. Gainera, ikasleak, erakundeak eta komunitatea hartu beharko lituzke, ez bakarrik irakasleak. Horretarako, bada, ikuspegi politiko argi batetik sortu behar da, guztien onaren zerbitzura. Hala, hierarkien orde ezagutza sareak sortzen dituen ikerketa beharrezkoa da.
- Komunitatearekin benetako lotura sortu behar du ikerketak. Horretarako, komunitatea ikerketa-prozesuaren fase guztietan izan behar da. Ikerketa espresak edo iraupen txikiko diru-laguntzek konfiantza sortzeko edo benetako eragina duten ekintzak sustatzeko aukerak murrizten dituzte.
- Garapen Iraunkorreko Helburuek unibertsitateen lehentasunen artean izan ez diren ikerketa-gaiak sartzeko aukera ematen dute.
- Kontuan izan behar dugu unibertsitateko zenbait eremu eta egitura diskriminatzaileak direla kolektibo minorizatuekin, eta horiek eraldatzen saiatu behar gara.

Planifikatutako ekintzak

Ekimen hauen bitartez, unibertsitateetan egiten diren ikerketek, hala nola GrAL, MAL eta ALIk³, lurraldearekin eta elikadurarekin -aldaketaren ardatz estrategiko gisa- konprometitutako ikuspegi ekosozial eta ekofeminista izan dezaten lortu nahi dugu.

Hitzarmena:

- Unibertsitateko ikertzaileen, beste hezkuntza etapa batzuetako irakasleen eta lurraldeko eragileen arteko topaketak antolatzea, beren premiei erantzuten dieten ikerketa-gaiak identifikatzeko.
- Tartean sartutako kolektiboekin hausnartzeko eremuak sortzea, abian dauden ikerketa-prozesuen jarraipena egiteko.
- Komunikazio-tresna presentzial eta birtualak sortzea, ikerketa prozesuak eta horien emaitzak ezagutzera emateko.

Proiektua:

- Esplorazio-analisi bat egitea (hau da, ikerketa-ariketa laburra), Espainiako Estatuko zortzi unibertsitateetan egiten ari diren unibertsitate hedapeneko jardueren eta tipologia berri emateko. Azterketa horretan irakasleekin, unibertsitateko langileekin eta UHKan interesatutako gizarte eragileekin hausnartzeko saio bat izango da.

3) Unibertsitate hedakuntza

Unibertsitate hedakuntza, Unibertsitatearen funtsezko eginkizun gisa, ezagutza akademikoa gizarteari transmititzeko estrategia gisa ulertu ohi da. Ikuspegi horren arabera, ezagutza sortzeko eta zabaltzeko gai diren erakunde bakarrak Goi Mailako Hezkuntza erakundeak dira. Hegoan eta

³Gratu Amaierako Lana (GrAL), Master Amaierako Lana (MAL), Amaierako Lan Integratzailea (ALI).

Justicia Alimentaria-n, uste dugu Unibertsitate Hedakuntza Kritikoak prozesu horizontalak sortu behar dituela Unibertsitatearen eta gizartearen artean, gure lurraldeetan eragiten duen tokiko-global errealitatearen inguruan elkarrekin hausnartzeko eta gizartea eraldatzeko helburua duten esperientzia alternatiboak sustatzeko.

Hausnarketak

- Unibertsitate hedakuntzak ez du, gaur egun, merezi duen garrantzia. Ez ohi da ikuspegi kritiko eta sozialekin lotzen, eta, oro har, kultura- edo transferentzia-jarduerak hartzen ditu. Nola berreskuratu eginkizun horren garrantzia?
- Unibertsitate hedakuntza lurraldea zainduz eta harekin elkarrizketan garatu behar da. Lkasleek gizartea eraldatzen lagun dezaten sustatu behar du.
- Ez dago ideia argi bat unibertsitate hedakuntzaren edo Unibertsitate Hedakuntza Kritikoaren (UHK) inguruan. Unibertsitate bakoitzak hura interpretatzen du eta oso ekintza desberdinak sustatzen ditu.

Planifikatutako ekintzak

Proiektua:

- Esplorazio-analisi bat egitea aurreikusten da, Espainiako Estatuko zortzi unibertsitateetan egiten ari diren unibertsitate hedapeneko jarduerak eta tipologiak aztertzeko.
- Gainera, zenbait elkarrizketa eremu osatuko dira, besteak beste, UHKari buruzko Estatu mailako Jardunaldi bat, UHKa elkarrekin definitzen jarraitzeko.

4) Unibertsitate komunitatearen dinamizazioa

Azken hamarkadetan, eta azken hezkuntza legeen eraginez, unibertsitateetan nolabaiteko gizarte kohesioa sortzen zuten unibertsitate eremuak desagertuz joan dira. Unibertsitateak eta hura osatzen duten pertsonak eta kolektiboak (irakasleak, irakasle eta ikertzaileak, AZLak, ikastetxe nagusiak, elkarteak, campusari lotutako kolektiboak) elkarri eragiteko eta gizarte prozesu eraldatzaileak sortzeko aukerak galdu dituzte, nolabait. Hori dela eta, osagai hau sartzen dugu, unibertsitateko eztabaidarako, elkarri eragiteko eta partekatzeke eta ikasteko eremuak biziberritzeko, eta, horien bitartez, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa, jasangarriagoa eta ekitatiboagoa sortzeko alternatibak bultzatzeko.

Hausnarketak

- Ez dago oso argi zer esan nahi dugun “unibertsitate komunitatea” aipatzen dugunean, ezta dinamizatzeak zer esan nahi duen edo zertarako balio duen ere. Dinamizatzeak beste batzuekin lan egitea esan nahi badu, garrantzitsua da kontaktuak bilatzea, kanpotik datozen ideien aurrean irekia izatea.
- Eremu fisikoak izateak edo ez izateak unibertsitatearen barruan harremanak eta gizarte-mugimenduak sortzea baldintzatzen du. Jantokiak eta kafetegiak izan ohi dira eremu horiek.
- Gazteak estigmatizatzen ditugu, horien motibazio eza azpimarratzen duten diskurtsoen bitartez. Haiek beste modu batzuetan mobilizatzen dira.

Planifikatutako ekintzak

Eremu honetan unibertsitate komunitatea dinamizatzen lagundu nahi dugu, batez ere ikasleen erakundearen bitartez, ikuspegi ekofeminista duen trantsizio ekosozialaren aldeko ekintzak egiteko asmoz eta elikadura ardatz estrategiko gida hartuta. Ildo horretan, hitzarmenean hauek landuko ditugu:

- Hitzarmenarekin bat datozen interesak dituzten ikasleak eta hezkuntza komunitateko beste kolektibo batzuk identifikatzea.
- Tartean dauden fakultateetan jardunaldi tematikoak garatzea, unibertsitateko erakunde eta lurraldeko eragileekin batera.
- Elikadurari lotutako eraldaketa ekosozialeko proiektuetan edo prozesuetan sartutako erakundeak laguntzea.

5) Barne kudeaketa, koherentzia eta gobernantza

Unibertsitateko elikadura-eremuek bat etorri behar dute unibertsitateek ezartzen dituzten elkartasun eta jasangarritasun politikekin. Hortaz, elikagaien erosketa publiko arduratsua, osasungarria, bidezkoa, iraunkorra eta garapen iraunkorarekin konprometitua sustatzea lehentasun bat izan behar da unibertsitateko kudeaketa taldeentzat. Gainera, unibertsitateetako elikadura-testuinguruaren benetako eraldaketa aukera handia izan daiteke hezkuntza komunitatea mobilizatzen eta kohesionatzen duten gizarte-prozesuak sortzeko.

Hausnarketak

- Unibertsitatea erreferentziazko erakundea da lurraldeetan. Nola sustatu eredu eta erantzukizun rol hori barne kudeaketari eta elikadura osasungarriarekin, osasunarekin, parte-hartzearekin eta gardentasunarekin koherenteak diren balioak sustatzeari dagokionez?
- Nola lagun dezakegu kudeaketa aldatzen? Nola egin dezakegu modu praktiko eta eraginkor batean?
- Unibertsitatean nagusi diren hierarkien ondorioz, beharrezkoa egiten da honelako prozesu bat eta kudeatzaileen borondatea bideratzeko modu egokia topatzea. Unibertsitateak autonomia duela komunikatzea garrantzitsua da. Baldintza agiriaren jarraipena egitea garrantzitsua da.

Planifikatutako ekintzak

Ekintza multzo honekin hau lortu nahi dugu: administrazioko, kontratazioko eta unibertsitate zerbitzuetako langileek erosketa publiko arduratsu, bidezko eta jasangarriari buruzko ezagutzak eskuratzea, batez ere elikadurari dagozkion kontuetan. Hitzarmenaren esparruan honako hau aurreikusten da:

- Unibertsitate komunitateko zenbait eremutan zerbitzuak eta erosketa publikoa kontratatuzko arduradunak identifikatzea.
- Erosketen eta kontratazioen baldintza-agirietan jasangarritasuneko eta gizarte justiziako irizpideak sartzeko proposamenak aurkeztea.

- Unibertsitateetan erosketak eta elikadura zerbitzuen kontratazioa eraldatu duten esperientziekin elkartzea.
- Unibertsitateko erosketez eta kontratazioez arduratzen diren administrazio eta zerbitzuetako langileei prestakuntza ematea.

6) Hego-Ipar harremanak

Latinoamerikako unibertsitate ugariak konpromiso politiko eredugarria dute lurraldearekin eta gizartearekin. Horietako askok eskarmentu handia dute pertsonen bizitzak hobetzen dituzten gizarte-berrikuntzako prozesuak sortzen dituzten esperientziei dagokienez. Justicia Alimentaria eta Hegoa bezalako erakunde askok eta Espainiako Estatuko hainbat unibertsitatek ere harremana dugu unibertsitate horiekin, eta, proiektu honen bitartez, harreman horiek indartuko ditugu, esperientziak partekatuko ditugu eta hainbat dinamiken ikuspegi integratzailea garatuko dugu. Izan ere, dinamika horiek Estatuei leporatzen dizkiegu, baina, egia esan, mundu mailako beste kontu batzuei dagozkie, hala nola kapitalismoa neoliberalaren hedapenari, patriarkatuari eta neokolonialismoari, eta eragina dute elikadura sistema globalizatuetan eta enpresa transnazional handien zerbitzura dauden eredu akademikoetan.

Hausnarketak

- Badaude Hego-Ipar harremana duten sare eta proiektu irekiak, eta ondo dabilta.
- Ikasleei zuzendutako laguntza ekonomiko eskasa oztopo nagusietako bat da ikasleek trukea egin dezaten edo arautik irten daitezen.
- Elkarrekin egotea eta sentitzea garrantzitsua da, haize kontra baikabiltza.
- Hitzak adoste eta hizkuntza komuna izatea garrantzitsua da.

Planifikatutako ekintzak

Ildo honek Hego-Ipar unibertsitate komunitateen arteko topaketa errazteko helburua du, gizarte eraldaketarekin konprometitutako herritartasun kritikoa sortzen duten ikuspegi metodologikoen truke eta partekatze horretatik ikasteko. Horretarako, honako ekintza hauek daude planifikatuta:

Hitzarmena eta proiektua:

- Eraldaketarako ezagutza sortzeari dagokionez, Unibertsitatea eta gizarte lotzen dituzten esperientziak eta ikuspegi metodologiak identifikatzea, Hego-Ipar ikuspegiarekin.
- Unibertsitate komunitateari zuzendutako ikuspegi metodologikoak ikasteko, trukatzeko eta partekatzeko eremu birtual eta fisikoak sortzea.

Hitzarmena:

- Online Lan Mahaiak osatzea, identifikatutako esperientzietan aplikatutako ikuspegi metodologikoen aurkezpena antolatzeko erabiliko ditugun irizpideak, ardatzak eta egiturak zehazteko.
- Hego-Ipar ikuspegi metodologikoak eta esperientziak laburbiltzeko dokumentuak egitea.

Latinoamerikako esperientziak

Jardunaldiaren bigarren zatian, erreferentzia eurozentrikoetatik irteten eta Unibertsitatea egiteko eta bizitzeko beste modu batzuetan inspiratzen saiatu ginen. Aurkezpena Latinoamerikako zenbait unibertsitateko hiru erreferenterekin hasi zen. Haiek hedakuntza eta elikaduraren inguruan dituzten esperientziak partekatu zituzten.

Esperientzia horiek lortu ezinako utopia gisa ikusteko arriskua dago. Hortaz, argitu beharra dago aurkeztutako ekimenak proposamen txiki bezala hasi zirela, prozesu konplikatuekin, jende motibatuarekin eta konpromiso handiarekin.

Diana Granados, Caucaoko Unibertsitatea (Kolonbia)

Caucaoko Unibertsitateko (UNICAUCA) Giza eta Gizarte Zientzien fakultateko Antropologia irakaslea, unibertsitate horretako Bake Batzordeko kidea eta Corporación Ensayos para la Promoción de la Cultura Política erakundeko kidea.

[Taller de Etnografía](#) ikerketa-mintegiaren esperientzia aurkeztu zuen. Hura autoprestakuntza eremu bat da, unibertsitatean bertan sortua, 2016an. Haren helburua eskualdeari dagozkion arazoei buruzko eztabaidak, foroak, topaketak eta beste ekintza batzuk egitea da. Arazo horiek unibertsitateetik pentsa daitezkeela uste dute (beste esparru batzuez gain), pentsamendu kritikoan eta feminismo beltzetan oinarrituta.

Gainera, beste esperientzia batzuk aurkeztu ziren:

- [Universitariamente feministas](#). Feminismoak errealitatea aztertzeko ezagutza-eremu estrategikoak direla oinarri hartuta, Universitariamente feministas ekimenak unibertsitate komunitateko hainbat eragile biltzen ditu, eztabaidatzeko, hausnartzeko eta ezagutza elkarrekin sortzeko eremuak antolatzeko helburuz. Eremu horietan, zenbait arlotako unibertsitate-ikasle eta -irakasleek parte hartzen dute, feminismoen gai problematikoak ikuspegi desberdinetatik lantzeko helburuz, hain zuzen, “unibertsitateko jendearentzat zentzua duten gaiak”. Esate baterako: Feminismoa mundu guztiarentzat al da? Zer da generoko indarkeria eta nola landu behar dugu unibertsitatean?
- [Escrituras para nuestro caminar](#). Landa eremuko irakasleekin eta diseinatzaile grafiko feministekin lan egiten duen esperientzia.
- [Trenzando caminos](#). Arte grafikoaren eta prozesu artistiko-sozialen bitartez, emakumeen eta sexu-generoko disidenteen aurkako indarkeria bistaratzen duen esperientzia.

Rodolfo Pastore, Quilmes-ko Unibertsitatea (Argentina)

Buenos Airesko Unibertsitateko ekonomista, Soziologia Ekonomikoan eta Nekazaritzako eta Elikadurako Ekonomian graduondoko ikasketak dituena. Quilmes-ko Unibertsitateko irakasle titularra, Construyendo Redes Emprendedoras en Economía Social (CREES) proiektuaren zuzendaria. Ekonomia Saileko egungo dekanoa eta Gizarte Zientzien Saileko dekanoa ohia. Ekonomia Herritar eta Solidarioan aditua.

[CREES programaren](#) eta [Elikadura Zirkuitu Sozioekonomiko](#)en esperientziak partekatu zituen. CREES programa, bada, ekonomia sozialeko hainbat ekimenek osatutako sarea da. Hura 2006an

sortu zen, eskualdeko krisi eta prekarietate egoerei erantzun bideragarria eta iraunkorra emateko asmoz. Bere bilakaeran zehar, programak diplomatuak, teknikari prestakuntzak, graduondokoak, inkubagailuak, berrikuntza proiektuak eta nazioarteko lankidetzako proiektuak sortu ditu, besteak beste. Beste aldetik, Elikadura Zirkuitu Sozioekonomikoak hedapen, ikerketa-ekintza, berrikuntza eta garapen estrategia akademiko eta lurraldeko integrala da. Trukeko, lankidetzako eta berrikuntza sozialeko harreman, fluxu ekonomiko eta lurralde-dinamiken sareak sortzen dituzte, elikadura sistema iraunkorrago, bidezkoago, osasungarriago eta burujabeagoetara igarotzeko.

Humberto Tommasino, Uruguaiako Errepublikako Unibertsitatea

CLACSO gizarte zientzien latinoamerikar batzordeko Extensión Crítica: Teorías y Prácticas en América Latina y Caribe taldearen koordinazio-taldeko kidea. Uruguaiako Errepublikako Unibertsitateko (UDELAR, gaztelaniaz) hedapeneko prorektore eta Unibertsitate Hedakuntzaren Latinoamerikar Batasunaren presidente izan zen. Hainbat artikulua eta hainbat liburu idatzi ditu garapen iraunkorrari eta unibertsitate hedapen landatarrari buruz.

UDELAR-en, herrialdeko bigarren unibertsitate erreformaren esparruan, Unibertsitate Hedapen Kritikoa pentsatzeko egin zuten prozesuaren ikaspen nagusiak azaldu zituen Tommasinok. Gainera, zenbait hausnarpen partekatu zituen espero zen bezala gertatutako horretan eta nolabait porrot egindako hartan ikasitakoari buruz. Halaber, irakaskuntzarekin, ikerketarekin eta komunitatearekin lotzeko estrategia gisa Praktika Integralak aurkeztu zituen.

Hizlariari buruzko informazio eta baliabide gehiago [hemen](#).

Topaketako indar-ideiak

Jarraian, Topaketako elkarrizketetan eta eztabaidetan sortutako “indar-idea” batzuk laburbiltzen ditugu. Irakurketa errazteko, horiek bost bloketan antolatu ditugu: Unibertsitate Hedapen Kritikoa; subjektuen arteko artikulazioa; gizarte eta hezkuntza prozesuak komunitatearekin; bestelako epistemeak; eta unibertsitate eraldatzailea.

Unibertsitate Hedapen Kritikoa (UHK)

- Ez dago unibertsitate hedakuntzaren definizio amankomun bat. Izan ere, unibertsitate bakoitzak modu batean inplementatzen du hura. Beraz, nola eman zentzu kritiko bat argi definituta ez dagoen funtzio bati? Nola pentsatu UHKa garaiko ezinegonaren azterketatik abiatuta eta nahi dugun Unibertsitatea sortzeko estrategia gisa?
- UHKa eginkizun estrategikoa da unibertsitatearen gainontzeko eginkizun hauei zentzua emateko: hezkuntza eta ikerketa. Horretarako, bada, hura modu integral eta integratu batean pentsatu behar da irakaskuntzarekiko eta ikerketarekiko.
- Etengabeko ariketa gisa sutatu behar da hura, ez modu pendularrean (aldizkakoa eta curriculumean oinarrituta). Hortaz, UHKaren curriculumean aurrera egin beharra dago.
- UHKak Unibertsitatea eta gizartea lotzeko aukera ematen du, gizarte aldaketarako garrantzitsua den ezagutza sortzeari dagokionez, eta ekintza eraldatzaileak sustatzen laguntzen du. Hortaz, UHKa herri boterea eraikitzeko estrategia bat da.

- Hedakuntza sustatzeko, bada, hura irakasleen merituak balioztatzeko taulan sartu beharra dago. Gainera, unibertsitate eragileen egiten duten hedapen lana aintzatesteko moduak pentsatu behar ditugu.

Subjektuen arteko artikulazioa

- Arlo akademikoko (irakasleak, ikasleak, unibertsitateko langileak) eta sozialeko subjektuen arteko artikulazioa funtsezkoa da Unibertsitatea eta bere eginkizun soziala birpentsatzeko. Zentzu horretan, bada, inguruneari lotutako Unibertsitate bat sustatu beharra dago; lurraldeko premiak asetzera bideratzen den Unibertsitatea, alegia.
- Unibertsitateko eragile askok gizarte-mugimenduetan parte hartzen dute, baita irakasleetako askok ere. Gizarte-mugimenduetatik edo aktibismotik datozen irakasleak identifikatzea eta antolatzea funtsezkoa da lan-ildo estrategiko bat ezartzeko.
- Akademiako eta gizarte eremuko subjektuen arteko artikulazioa sustatzeko ikasketa- eta praktika-komunitateak sortzen lagundu beharra dago.
- Eremu horizontalak funtsezkoak dira subjektuen arteko artikulaziorako eta ezagutza elkarrekin sortzeko prozesuak sustatzeko. Eremu horiek, bada, hezkuntzan (banku-hezkuntza) eta ikerketan (merkatuaren zerbitzura) nagusi diren logika hegemonikoak hausteko balio dute. Hala, ikasleek, irakasleek eta gizarte eragileek modu horizontalean lan egiteko eremuak beharrezkoak dira. Izan ere, eremu horiek ikasleak beren ikasketa prozesuaren subjektu aktibo gisa kokatzeko aukera ematen dute. “Inflexio-puntu gisa ikusten dute, beren buruari galderak egiten dizkiote eta ohartzen dira derrigorrezko lan batek [ikerketan lanak, GrAL, MAL] beren lurraldeari ekarpena egiteko balio dezakeela. Horri esker, lurraldeko prozesuetan, gizarte erakundeetan eta abarretan parte hartzen dute”.

Gizarte eta hezkuntza prozesuak komunitatearekin

- Ikasgela konfort-eremu bat da irakasleentzat. Gelatik irteteak ikasketa prozesu integralak sortzen lagun dezake. Horietan, irakasleek ikasketa bideratzen dute, baina beste gizarte eta hezkuntza eragile batzuekin partekatutako prozesu batean. Gelaz kanpoko prestakuntzak edo ikerketak egiten direnean, ikasleek lurraldea berrezagutzen dute, ezagutzen ez zituzten esperientziak ikusten dituzte. “Unibertsitatera ekartzeko moduko esperientzia eraldatzaile ugari daude, haietatik ikasteko moduko esperientziak”. Ikasleek, gainera, beren interes eta ekintza sareak dituzte eta horiek baliogarriak izan daitezke eta motibazioa handitu dezakete.
- UDELAR-en esperientziak erakusten duenez, lankidetzan prozesuekin ikasgelatik irtetea egiten den lana berdintasunezkoagoa eta horizontalagoa izaten da. Erronka da unibertsitatearen egiturak ikasleen ibilbide pedagogikoaren zati gisa onartzea prozesu horiek (unibertsitate hedakuntzaren curriculumak).
- Funtsezkoa da ikasleekin hausnartzea, beren burua gizarte eraldaketaren eragile gisa ikusten lagunduko dien eginkizun aktiboa proposatzea. Ikasleei buruz dugun irudi negatiboak zaildu egiten du unibertsitateko curriculumak kortse bihurtu dituen egiturak haustea.
- Komunitatearekin lan egiteko beharrezkoa da konfiantza politikoa sortzea. Horretarako, komunitateko eragile estrategikoekin lan egin behar dugu pixkanakako prozesu batean eta epe luzera begira (hori garrantzitsua da “lehorreratze efektua” eta inbasio kulturalak ez eragiteko). Konfiantza politiko hori denboraz egiten da. Komunitateak neurtzen gaitu eta estraktibismo kulturala egingo dugun edo eraikitzen lagunduko dugun identifikatzen du.

- Frustrazio handiak ekiditeko, kontuan hartu behar dugu esperientzia handienak ere proposamen pilotu txikiak izaten direla hasieran, eta hezkuntza, ebaluazio, hausnarketa eta ekintza prozesuari esker hazi egiten direla.

Bestelako epistemeak

- Aurrez ezarritako prozesuek ezin dute betirako balio; Unibertsitatea eraldatzeko aldaketa iraunkorrak egin behar ditugu eraldaketa hori bultzatzen duten prozesuetan (hau da, betikoa eginez ezin dugu Unibertsitatea eraldatu).
- Ezin ditugu sistema hegemonikoaren aurkako proiektuak pentsatu horretan parte hartzen ez badute ikasleen mugimenduek eta Unibertsitate hegemonikoa zalantzan jartzen eta Unibertsitate demokratikoa sortzeko modua hausnartzen duten beste borroka kolektibo batzuek.
- Hezkuntza osatugabea eta partziala da ez baditu beste episteme batzuekin eztabaida sustatzeko estrategiak, hau da, gizarte mugimenduekin eta askatasunaren aldeko beste kolektibo eta erakunde batzuekin.
- Eraldaketa pentsatzerakoan, feminismoak beharrezkoak dira pribilegioak identifikatzeko eta zalantzan jartzeko, baina ez horretarako bakarrik. Izan ere, epistemologia feministak ezinbestekoak dira munduari eta ezagutza eraikitzeke moduei buruzko begirada guztiz desberdinak eskaintzen dituztelako. Horiek androzentrikoak eta eurozentrikoak ez diren logiketatik eraikitzen dituzte; logika antirrazista, antikapitalista eta dekolonialetatik, alegia. Mugimendu feministetatik, bada, oinarri teoriko eta praktikoa izugarria eraiki dute, eta hura lagungarria izan daiteke bestelako gizarte bat osatzeko, unibertsitateetan hausnartu eta ekin bitartez.
- Halaber, arrazakeriaren aurkako mugimenduek, lan-eskubideen alde borrokatzen dutenek edo elikadura burujaberaren aldeko mugimenduek urteak daramatzate praktika askatzaileak erabiltzen. Praktika horietan, bada, ikasketen sistematizazioa eta ikerketa-hausnarketa-ekintza (IAP, gaztelaniaz) metodologia erabiltzen dituzte beren jardura indartzeko. Beraz, praktika eta metodologia horiek interes handikoak dira unibertsitate komunitatearentzat. Latinoamerikako unibertsitateek, bada, ibilbide luzea dute beren praktika berrikusten eta sistematizatzen eta hura kontzeptualizatzen eremu epistemologiko sendoa osatzeko.

Unibertsitate eraldatzailea

- Unibertsitate komunitatea mobilizatzen ez bada ezin izango dira Unibertsitatearen eginkizunak gizarte eraldaketara bideratu. Hala ere, ez dago argi “unibertsitate komunitatea” zer den, zer subjekturi dagokion eta nola dinamiza daitekeen.
- Proposamen feministak ezinbestekoak dira gizarte eraldaketa pentsatzeko: eraldaketa feminista izango da, edo ez da izango.
- Unibertsitate komunitatearen eraikuntza eta mobilizazioa ikasleak hartu behar ditu bere fase guztietan. Ikasleak eta irakasle eta ikertzaileak esperientzia mobilizatzaile eta eraldatzaileen bitartez “liluratu” behar ditugu, horien protagonista eginez; proiektuen, ikerketa-ekintza-partaidetzaren, ikasketa-zerbitzuaren, eragiteko ekintzen eta beste estrategia batzuen bitartez. Parte hartzera animatu behar ditugu, interes meritukratikoaz harago (kredituak, tituluak, seiurtekoak eta abar lortzea); aitzitik, partaidetza hura guztien onerako ekarpen gisa ulertuz.
- Latinoamerikako unibertsitateen esperientzietara hurbildu behar dugu, horiek unibertsitateko kideak motibatzen, lan egiteko beste modu batzuk erakusten eta eraldaketa aukerak imajinatzen dituzten proposamen inspiratzaileak garatu baitituzte.

- Azkenik, eraldaketak gizarte eta ingurumen justiziako esperientziak finkatu behar ditu, baina beste helburu garrantzitsu batzuk ere betetzen ditu. Esate baterako, komunitatea osatzea, gizartearen interesa sustatzea eta proposamen feminista, dekolonial, horizontal eta parte hartzekoetan inspiratutako bizimoduak berrasmatzea...

Errelatoretza bukatzeko, muraletik hartutako zenbait iritzi partekatu nahi ditugu. Izan ere, murala parte-hartzaileen eskura izan zen jardunaldi osoan zehar, eta, bertan, gertatzen ari zenari buruzko iritziak partekatu zituzten. Ideia eta hausnarketa horiek hiru taldetan antolatuko ditugu:

Esker ona eta motibazioa: lagun askok irakasleen zerbitzura jarritako eremua eskertu zuten eta Topaketatik oso motibatuta irten zirela onartu zuten, aurkeztutako ekimen biek elkarrekin lan egiteko eskaintzen zuten aukeragatik.

Aldaketaren premia: parte-hartzaileetako asko bat etorri ziren, alegia, unibertsitateetan eraldaketa egiteko premia dagoela, gizartearen dinamizazioan izan behar duten protagonismoa berreskuratzeko. Unibertsitatearen eginkizun guztietan lan egin beharra dago: irakaskuntza, ikerketa eta hedakuntza eraldatu... Behetik gora!

Biderkatzeko eta partekatzeko sarea: muralean agertutako ideia nagusietako beste batek aldaketa nola gauzatuko den hausnartzen zuen. Irakasleetako askok irakasleen, unibertsitateen eta kolektiboen arteko harremanak ezartzera animatu zuten, sinergia horiek prozesu horizontal eta parte hartzekoen bitartez sortzeko. Hain ustez, Unibertsitatearen eraldaketa posible da, baina sarean lan eginez. Gainera, amankomunaren eremua eraikitzekeko modu berriak behar direla aipatu zuten, unibertsitate komunitate osoa tartean sartuz: “trukeak (Hego-Ipar, Unibertsitate-Gizarte) beharrezkoak dira gure jarduera bideratzeko. Sinergia eraldatzaileak bilatu behar ditugu!”.

3. irudia. Unibertsitate Kritiko Eraldatzailea Topaketaren osoko unea.



Iturria: Justicia Alimentaria eta Hegoa.

Jardunaldiko materialen biltegia: [hemen](#).